

## JUAKO ESCASO

**IDAZLEA** Gertutik jarraitu du betidanik Juaco Escasok (Madril, 1979) Euskal Herriko gatazka politikoa, eta hari buruzko ikerketa egiten ari zela ezagutu zituen Martxoaren 3ko gertakariak; bi belaunaldiren bitartez, 1976 hartan bizitakoak eta borroka hark utzitako arrastoa batu ditu haren nobela berrian, 'Todo que ganar' liburuan. **JON JIMENEZ** GASTEIZ

# "Antolatzekeo eredu izan zen"

**F**rankismoaren amaiera urteetan bizi da Elena, Gasteizen, *Todo que ganar* eleberraren protagonista eta, oztopoak oztopo, "askatasuna" lortzeko borroka egiteko prest dago. Haren alaba Indarren bitartez jasoko ditu irakurleak orduko eta egungo gertakarien berri Juako Escaso (Madril, 1979) idazlearen azkeneko liburuan.

**Zergatik kokatu du Madrilgo idazle batek haren eleberria 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko gertakarietan?**

Beti jarraitu izan dut arretaz euskal gatazka politikoa. Distantzia izan arren, nire bizitzan presente izan da errealitate hori, batetik, Bilbon familia dudalako baina baita punk-rock taldeen eraginagatik, eta Madrilgo hainbat sektoretan han bizitakoak oihartzun handia izan duelako eta izaten jarraitzen duelako. Martxoak 3ko gaiak arreta deitu zidan Komando Autonomo Antikapitalisten inguruko entsegu bat irakurri nuenean. Ordura arte Gasteizko langileen mobilizazioak ezezagunak ziren niretzat, baina ikertu ahala argi ikusi nuen istorio batentzat materiala zegoela. Ez nuen fokua jarri nahi Poliziaren errepresioan, baizik eta aurreko bi hilabe-



Juaco Escaso idazlea. JALEA

teetako mobilizazioetako indar eta arrakastan. 1976ko greba prozesua niretzat eredu da klase antolakuntza eta asanblada mugimendueterako, eta baita egungo eta etorkizuneko borroka egituratu eta proiektatzeko.

**Protagonistetako baten alabak haren amaren iragana ikertzeari ekiten dio. Nola aldatu da gizartea orduetik? Nola ageri da aldaketa hori eleberrian?**

Espainiako eta Euskal Herriko gizartea asko aldatu dira 70. hamarka-

datik, eta kasu askotan txarrera. Interesgarria da orduko errealitatea eta egungoaren arteko alderaketa egitea lan gatazken inguruan, klase antolaketaren inguruan, gizarte mobilizazioaren inguruan edota ekimen politikoari dagokionean. Nire belaunaldiko ama eta aitek gaur egun pentsaezinak diren borroka prozesuak abiatu zituzten. Bestetik, beharrezkoa da gaur egungo errealitatea den moduan ikusten uzten ez digun oihala kentzea: errepresioa egunerokoan dugu eta gazteak ditu jomuga bereziki, Euskal Herrian eta estatuko beste gune batzuetan tarteka izaten diren eraso eta muntaketa polizialekin. Nobelan hori bi protagonisten bitartez agerian geratzen da.

**Martxoaren 3ko gertakariak bizi izan zituztenekin izan zara eleberrirako dokumentazio lana egiteko?**

Garai hartan barneratu ahal izateko dokumentazio lana oso garrantzitsua izan da. Kezkatuta nengoen gertakariak zintzoki erretratatu eta kontatu nahi nituelako eta hori bertatik bertara bizi izan zuten lekukoekin baino ezin daiteke lortu. Zorte bat izan da Martxoak 3 elkartearen lana eskura izatea.